



EBANJELIOA: BEHAR DUGUN BERRIA

“Zeren bila zabilzate?”

2021eko urtarrilaren 17a
Urteko 2. igandea (B)

Joan 1, 35-42

Eta neuk ikusi dut eta aitortzen hauxe dela Jainkoaren Semea.

Hurrengo egunean, berriro ere bertan zegoen Joan bere bi ikasleekin. Jesus handik igarotzen ikusirik, esan zuen: “Hona hemen Jainkoaren Bildotsa”.

Bi ikasleek, hori entzutean, Jesusi jarraitu zioten. Jesusek, atzera begiratu eta ondoren zetozkiola ikusirik, galdetu zien: -Zeren bila zabilzate?

Haiek erantzun: -Rabbi, non bizi zara? (Rabbik “Maisu” esan nahi du).

Jesusek esan zien: -Etorri eta ikusi.

Joan, non bizi zen ikusi eta berarekin gelditu ziren egun hartan. Arratsaldeko laurak aldean zen. Joani entzun eta Jesusi jarraitu zioten bietariko bat Andres zen, Simon Pedroren anaia. Lehenik, bere anaia Simonekin egin zuen topo eta esan zion: “Mesias aurkitu diagu” (Mesiasek “Kristo” -hau da, Gantzutua- esan nahi du).

Eta Jesusengana eraman zuen. Jesusek, begira-begira jarririk, esan zion: “Simon zara zu, Joanen semea, baina aurrerantzean Kefas deituko zara” (Kefasek “Pedro” -hau da, Harkaitz- esan nahi du).

Non bizi izan ikusi eben eta Beragaz geratu ziran. Jesusen lehenengo ikasleak.
Jaungoikoaren aukeratuak barriztatta gelditzen dira.

BIZITZEN IKASI

Jose Antonio Pagola

Joan ebanjelariak ardura berezia izan du Jesusen jarraitzaileen talde koxkorra nola hasi zen adierazteko. Dena ustekabean gertatu dela dirudi. Han zihoan Jesusez ohartu da Bataiatzailea eta hari jarraitzeko diotse bere ikasleei: «*Hau da Jainkoaren Bildotsa*».

Segur aski, ezer gutxi ulertu dute ikasleek, baina «*Jesusi jarraitzen*» hasi dira. Alditxo batez, isilik doaz. Ez dute artean harekin benetako harremanik izan. Ezezagun bati jarraitzen diote, eta ez dakite zehatz, ez zergatik, ez zertarako.

Jesusek eten du isiltasuna, galdera batez: «*Zeren bila zabilzate? Zer espero duzue nigandik? Nik daramadan norabidea hartu nahi al duzu, bizitzeko? Ondo argitu beharreko gauzak dira. Ikasleek diotse: «*Maisu, non bizi zara?*» Zein da zure bizitzaren ezkutukia? Zer da zuretzat bizitzea? Itxuraz, ez dabilzate doktrina berriren bila. Bizitzeko era desberdin bat nahi dute ikasi Jesusengandik. Hura bezala bizi nahi dute.*

Zuzenean erantzun die Jesusen: «*Etorri eta ikusiko duzue*». Egin zeuek esperientzia. Ez ibili kanpotiko informazio bila. Etorri nirekin bizitzera eta ikusiko duzue nola bizi naizen, nondik nora orientatzen dudan neure bizia, zeinez arduratzen naizen, zergatik naizen bizi horrela.

Horra gaur beharrezkoa dugun urrats erabakitzailea, kristautasunaren historian aro berri batik hasiera emateko. Milioika lagunek dio kristaua dela, baina ez dute esperientziarik zinezko harremanik Jesusekin. Ez dakit nola bizi zen, ez dute haren egitasmoaren berririk. Ez dute ikasi hartaz ezer berezirik.

Bitartean, gure elizetan ez dugu gaitasunik fededun berriak sortzeko. Gure hitza ez da jada, ez erakarle, ez sinesgarri. Itxuraz, kristautasuna, guk hartzen eta bizi dugun moduan, gero eta gutxiago zaio axola jendeari. Norbait hurbilduko balitzaigu «non bizi zara?», «zer du interesgarrikerik zure bizitzak» galdezka, zer erantzungo genioke?

Premia handikoa da kristauak talde txikitik elkartzea, elkarrekin ebanjelioa entzunez Jesus nola bizi zen ikasteko. Gu guztiok baino erakarleago eta sinesgarriago da hura. Jarraitzaile berriak sorraraz ditzake hark, era desberdinean eta interesgarrian bizitzen irakasten baitu.